

1935ean egunkari euskalduna behar

MARTIN UGALDE



ATZOL-EN» eskutuz bat dut eskutian.

Donostiako «Euskaltzaleak» elkargoko idazburua duen paperean idatzi zion Jokin Zaitegi Jesu Lagun eta idazle exiliatuari

Belgikako Marneff-era 1935go martxoaren 15ean.

Beraz, orain 56 urte.

Geroztik gerra bidez Errepublikak bota zuten, eta «Aitzol» hil, Gemika erre, milaka euskaldun frentean bota, gartzelak bete, asko afusilatuta 150.000 erbestera bultzatuta; alemanak bigarren «Mundu-Gerra» sortu eta milioika gizakumeak hil eta gero, Aliatuak eta Frankok irabazi; hau, beste 30 urte herria zanpatu eta gero, ohean hil zen; demokrazian Autonomia botoz irabazi genuen, Eusko Jaureritza burutu, eta hori zor zaizkion ahalmenak pittinkapittinka erregalatzaren ari zaizkigula hamar urte joan eta oraindik ez ditugu geureak direnak eskuratu.

Luzea izan zen diktaduraren kalbarioa, eta luzea doa demokraziaren gauzatzea.

Beti, geurea denaren eske!

Eskale bihurtu gaituzte, «Aitzol» bezala, hau hil zuten baina bere ahotse ez; orain 56 urte idatzitako gutunaren bitartez hemendik entzuten diogu esaten: «Euskal-egunerokotzaz galdetzen didazu? Ez gaude oraindik maila horretara iritsirik. (...) «Euskaltzaleak» paskunarentzako, ez beste euskal egintzarako, inork ez du xentimorik ere eskaintzen... Nola egunerokoa argitaratzea pentsatu? Nola Nola milioi erdia bildu genezake?».

Agintea eta autozentsura

JOAN MARI TORREALDAI



OSTEGUNEKO

egunkari guztiztan etorri da: Senprunek, Espainiako Kultura Ministroak, 18 goi-kargu kargurik gabe utziok dituela. Larunbatean jakin genuen horietako biri kendu zela kargua, baina ez Senprunek Gobernuak baizik. Golkoko gerran Espainiaren eskuhartze gehiegia kritikatzeko zutela eta.

Gertakariarik harago joanez, pentsatzen jarria nago zein erraz bultzatzea dezauden autozentsurara aginteak, agintean ez dagoena ere. Alegia, agintearen lotura instituzionalik ez izan arren, haren dependenzian egon badaudenak erabat libre al dira eritziak emateko orduan? Goitik behera datorren agintearen itzala handia da, luzea eta zabala. Itzali horrek jende asko harrapatzen du aspian. Bestalde, zigortzeko modu asko du agintea. Kargutik kentzea da bat (kargua eduki egin behar horretarako), eta laguntzak ukatzea beste bat, adibidez. Adibidez. Harremanak, laguntzak eta bestelakoak arautuak daudenean, gaitz erdi. Baina askotan ez daude. Eta ez daude araututa espreski. Hobeto lotzeko bide bait da hori ere. Dependentsia sortuz gobernatzea errazago bait da. Mutiko/neskato on eta txinto bezala jokatzea dagokio orduan menpekoari. Menpekoari esan dut, eta ez herritarri, menpeko bilakatzeko bait da herritarra holakoetan. Zein zaila den libre izatea!

Aginteari begirunera zor zait, hori bai. Agintea, ordea, kultura bilatzen du oso erraz. Eta ez du horren erraz onartzen kritika. Arriskurik nahi ez duenak hobe du autozentsura. Badaezpada ere. Txiringitosa salbata nahi badu, zertan esanik ez. Nahi duenak uler beza.

EL INDEPENDIENTE

Gerra bai, negoziaketa ez

Negoziaketa dinamika bati hasiera eman ez bazaio izan da, koalizioan nagusitu den ideia, gatazka gerraren bidez konpontzeko izan delako. Militar logika da nagusi eta moralaren argudioak gezurrezkoak direla jartzeta da agerian. Berriz ere, basakeriaren arrazoia ezarri nahi da, eta ez gerrari ezezkoaren arrazionaltasuna.

ALBERTO PIRIS / 1991-II-18

ABC

Espainia proiektua

Hamarkada asko daramatzagu Espainia arazo bezala aztertzen; eta horren eragina izan da, arazorik gabeko Espainia baten baieztatzeko tentaldia. Espainiaz proiektu bezala hitzegiteko ordua etorri da, eta oso serio gainera, espainiar gehienentzat funtsean onargarri den proiektu positibo bezala.

(...)

Autonomiak gogorenan; espainiar guztiak hobekiago eta egokiago batzeko, baina beti

HEMEROTEKA



ZULET / EL DIARIO VASCO / 91-II-18

Espainia. Iritsi da ordua bromeatzen ez aritzeko «herria» edo «Estatuarekin». Espainia bada eta izango da.

MANUEL FRAGA IRRIBARNE / 1991-II-18

Diario 16

Epailaritzako keinu erretorikoa

Auzitegi Nazionaleko erabakiak, Gobernuo lehendakariak eta bi ministrok GALI buruzko epaiketan aitortu behar dutela dioenak, antzeppen itxura gehiago du, benetako gauza baino; hots, kasuak duen bitxi-

tasunagatik gehiago deitzen du atentzioa, Amedo eta Dominguez polizien jokabideetan benetan gertatu zena argitzeko balio duena baino.

(...)

Lekukoak gauzak ixilpean gordetzera behartuta daudenez, funtzionario publiko bezala, frogabide hori oso garrantzi gutxiokoa izango da, batere ez duela ez esateagatik.

(...)

Gauza bera gertatzen da Konstituzioan zein legeetan aitortutako aukera berdintasunekin, benetako bertsioa desberdintasuna bait da. Gaudeneko historiaren maila honetan ere, ministrokek pribilegiatuaren tra-

taera jasotzen dute nazio guztietan.

EDITORIALA / 1991-II-18

egin

Ezpatak goian

Hego Euskal Herriko instituzio autonomiko eta probintzialiek aldarrikatzen duten giza-zatzearen gehiengo ez dira manifestazioa joandako hogei mila pertsonak. Are gutxiago, manifestaziorako propaganda egiteko zituaten eta gutxienez moralaren kontraok ziren pribilegioak kontutan hartuta.

J. IRATZAR / 1991-II-18

ZUZENDARIARI

Euskaldun BBV

Lehengor egunean, BBV-rengandik gutuna jasota da, niri zegokidan sariaren bila abiatu nintzen, hurbilen dudan banku horren egoitzara. Bidean nindoala burura etorri zitzaizkidan aurreko urteetan jasotako sariak, hain zuzen gaztelaniak bi hiztegi eta ingelezarako beste bat.

Eta bildur pittin batek hartuta, pentsatzen nindoan orangoan ez ote ziren okertuko, tronpatuko edo konfundituko gure BBV-koak eta, txirripaz, euskarzako hiztegiaren bat edo emango ote ziguketen. Ez da izango!

Ez, ez da izan —esan nion neure buruari ahopeka saria jasotakoan— orangoa honetan frantsesezko hiztegia.

Ederra da gero, BBV-koek gu eleantitzen izan gaitzen duten gogo-asmoa. On-on derituz nil hizkuntzak ikasteari. Jakiteak ez du ogirik jaten eta ate asko ireki darioa.

Baina gero esanen dute

euskarak bartzertzera egozten dituela erdara gaixokak.

Gure BBV-k ondorio eraketuen du bere euskaltasuna. Nerbioiko ura bezain gardan eta garbi dago euskarra maite-maite dutena BBV-ko buruek, eta gure ta euren ama Euskal Herria aurrera ateratzeko egiten dituzten ahalak benetan txalagarriak dira.

Holako amaren-semerekin ez da harritzeko euskaldunok, menderen mendez, izan genuen askatuna, geure buruaren jabetasuna ta mundu osoko besteekiko harremanak galduta izana. Oro nahi orro gal, eta Espainia irabazi ez horiek baina Euskal Herria galdu ta galerazi egin dute. Seguraski euren handi-nahiak eta handiki-mandiki ibiltzeko nahikeria ondo beteak dituzte. Zerueta dute irabaztea baina han ere madarikuatuz izango ote diren nago, geure asaba zaharren berat txikerra Gaztelerriko jauntxo beltzaranari merke saldu dituelako.

XABIER ALDAIKORREKA (BILBO)

Askatasunari beldurrik ez

Askatasunaren aldeko manifestazioa egingo dutela larunbatean dioe. Horrela izango balitz ni ere bertan izango nintzateke, baina ez nauze ikusiko, eta ez askatasunaren alde ez nagoelako, baizik eta manifestazioa askatasunari mugak jartzeko (beraz askatasun gutxiago izateko) konbokatuta dagoelako ikusten bait dut.

Denok dakigu ideia eta ideien gauzatzea ez direla sekula berdinak izaten (kasu honetan askatasuna eta askatasunaren gauzatzea) baina beste alde batetik, bakoitzak ideie berbera gauzatzeko bere desberdinek erantzuten ditu, beraz askatasuna aukeratzeko ahalmena izanik, batzuk askatasunera hurbilduko dira aukeratzeko ahalmena handiago emanez eta era berean beste batzuk urrunduko dira eskubide haur murriztuz.

Askatasuna eta autotbia dela eta, askatasuna maite eta beldurrik ez badiegu, izan

gaitzen aske eta aukera dezagun guk geuk zuzenean, ez diezaiogu beldurrik izan gure askatasunari eta ezta besteenerari. Egin dezagun erreferendum bat alternatiba desberdinekin, eman diezaiogu aukera zuzena herritar bakoitzari. Ez al da hori demokrazia? Ba al dago askatasuna gauzatzeko modu zuzenagorik? Bueno bai, ez nahastu datak eta 23an Donostian ikusiko gara.

MIKEL ALDASORO (ALGORTA)

Autobide baten ezadostasunak

Autobidea dela eta bi aldeetatik sortzen diren joera gogorak ez dute gauza onik ekarriko gure herriariztat eta berriz irabazte bakarra «divide y vencerás» politikari erabiltzen duten Euskal Herriko askatasunaren etsaiek izango dira.

Argi dago gure Institutioek herri mugimenduei ez dietela jaramonik egiten ez

bakarrik kasu honetan, ezta beste kasu ugarietan ere: Leizoi, Euskara (AEK, EGUNKARIA...), OTAN e.a., autoritarismo hutsez jokatu, eta herria elkartzeko saiatur behar gehiago erradikalizatzen dute.

Negarria da agintarien boterea eta indarra erakunde herrikoiek bartzerteko erabiltzea eta joera hauek justifikatzeko ETaren mehatxuak direla e.a., aitzakiak besterik ez dira, eta Lurraldekoek bakar-bakarrik elkartzeko serieo bat eskatzeko, gose grebak egiten dituztenean, dirudienez, agintariak ez dira entzarten ere, horrelako ekintzak bere interesei ez bait zaie komeni.

Demokrazia autoritario eta prepotente hau EEBBak munduan zehar inposatu ahalagintzen direlarik, naziek «nuevo orden» erakitzen saiatu ziren antzekoa, gure agintariak, bakoitzak bere mailan, eredu hartzen dutela esan genezake zoriztarrez.

KELMEN SARASOLA (BILBO)

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkarira: JOXE MIEL ZUMALABE
Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI, LUZIAN ETXEZARRI, IÑAKI URIA
Publizitateak: KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea, 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Publizitatea: Loloia, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxa: 42 93 18
Arabara: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gaiteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruinea / ☎ 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75